



ALBOAN

HIESa justiziaren ikuspegitik. Helburu bat baino, garapen eskubide bat



BFA
DFB
Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZTZA ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA
Gazarte Gaitasuko Sailburuordetza
Garaipen Lanekidetasuneko Zuzendartza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo




Argitalpen hau Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko 9 koaderno osatutako bilduma baten zati da. Gai honen inguruan sakondu nahi izanez gero bestelako material osagarria ere badugu (komikiak, posterrak, ikerketak...), eskaria gure bulegotan zein gure web orrian egin dezakezu.

■ Hezkuntza baliabideak ALBOAN

- o. Milurtekoko Garapen Helburuak:
Aldaketarako tresna edo garapen gaingabetua? (2007)
- 1. Zero Pobrezia.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)
- 2. Lehen Hezkuntza guztiontzako.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)
- 3. Genero-berdintasuna sustatzea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)
- 4. Haurren heriotza-tasa murriztea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)
- 5. Amen heriotza-tasa murriztea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)
- 6. HIESa justiziaren ikuspegitik.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2008)

**HIESa justiziaren ikuspegitik.
Helburu bat baino,
garapen eskubide bat**



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxe: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxe: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda Kalea 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxe: 943 320 267
alboangi@alboan.org
www.alboan.org

Egilea: Michael Kelly eta **ALBOAN**

Data: otsaila 2008

Itzulpena: Elhuyar

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: BI-3066-07

ISBN: 978-84-612-1232-3

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburua aipatzen baldin bada.

Aurkibidea

HIESa justiziaren ikuspegitik.

**Helburu bat baino,
garapen eskubide bat.** MICHAEL KELLY, SJ.

I. Hitzaurrea	5
II. Esparru kontzeptuala	7
III. Egitura eta jarduera ekonomiko globalak	15
IV. HIES epidemiak dituen ondorioak	18
V. Eliza kristauek GIB-ari eta Hies-ari ematen dioten erantzuna	23
VI. Ondoria	24
Eranskina	25

Eztabaidarako eta ekintzarako galderak 29

HIESa dut. MICHAEL KELLY, SJ. 33

Afrikatar emakumeak: epidemia gainditzeko itxaropena. 36

MICHAEL KELLY, SJ.

Glosarioa 39



HIESa justiziaren ikuspegitik. Helburu bat baino, garapen eskubide bat

*Michael Kelly, sj.**

I. HITZAURREA

Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) funtsezko pieza dira garapen-bidean dauden herrialdeen politika publikoetan, bereziki, Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeetan. Izan ere, herrialde horiek dute GIBaren (Giza Immunoeskasiaren Birusa) prebalentziarik handiena, eta HIESaren (Hartutako ImmunoEskasiaren Sindromea) eraginik larriena ere horiek jasaten dute. Herrialde horietako batek ere ez ditu MGH guztiak lortuko. Horietako askok ez dute bat bera ere lortuko. 2015erako, muturreko pobrezia eta gosea ez dira erdiraino murriztuko; ez da lehen hezkuntza unibertsala lortuko; genero-berdintasuna eta emakumeen jabe-kuntza ez dira oraindik errealitate izango; haurren heriotza-tasa ez da bi heren murriztuko; amen heriotza-tasak altua izaten segituko du; GIBak-HIESaren, malariaren eta beste gaixotasun batzuen ondorioz jendea hil egingo da; inguru-menak presio handiagoa jasan beharko du eta degradatu egingo da; garapenera-ko elkartze globala teorikoa baino ez da izango, iparraldeko herrialde aberatsek hegoalde behartsuko ahotsak isilduko baitituzte.

Beste askotan bezala, 2015eko helburuetarantz aurrera egiteko nazioarteko komunitatearen konpromisoak ezerezean geldituko dira, segur aski. Pertsona behartsuen itxaropenak piztu eta gero, gauzak konpondu arte beste hamar, hamabost, hogeit edo hogeita bost urte itxaroten –eta itxaropentsu– jarraitu behar dutela esaten die munduak orain. Bitartean, milioika emakume eta gizon

* Michael Kelly, sj, Hausnarketa Teologikorako Jesuiten Zentroa. Lusaka, Zambia.

gaixotu eta hilko dira. Jende askok pobre izaten jarraituko du, hots, itxaropenik gabe, baldintza penagarrietan eta degradazioan biziko da. Horientzako, hogeita-batgarren mendeko mundu zirrargarria igarotako urteetako etsipenaren alde ilunaren jarraipena besterik ez da.

2004ko abenduan, Estatu Batuetako Kanpo Harremanetarako Kontseiluko hitzal-di batean, Britainia Handiko Gordon Brown ohi ekonomia-ministroak aurreikusi zuen, *kasurik onenean*, gaur egungo aurrerapen-erritmoarekin jarraituz gero, Saharaz hegoaldeko Afrikan ondorio hauek jasango dituztela:

- Lehen hezkuntza unibertsala ez da 2015ean lortuko, 2130ean baizik; hau da, aurreikusitakoa baino 115 urte geroago.
- Pobrezia ez da erdira murriztuko 2015erako, 2150erako baizik; alegia, ados-tutako epea baino 135 urte beranduago.
- Saihestu daitezkeen haurren heriotzak ez dira 2015erako ekidingo, 2165erako baizik, hau da, 150 urteko atzerapenarekin.

Bidezkoa da behartsuei 150 urte itxaroteko eskatzea munduak bere hitza bete arte? Zerk geldiarazten du aurrerapena?

Afrikaren kasuan, galdera horri erantzuteko aipatu behar da porrotaren arrazoi nagusietako bat MGHetan bertan dagoela: GIB-HIES beldurgarria eta horri aurre egiteko konpromiso globalik eza. Egia da gaitz guztiak ezin zaizkiola HIESari egotzi, baina horrek dakartzan ondorenek gainerako MGHak lortzeko gaitasuna mugatzen dute. Hurrengo orrialdeetan GIB-HIESak zein ondorio dituen azaltzen da: pertsona behartsuak are behartsuago bihurtzen ditu, elikagai-segurtasuna mugatzen du, emakumeen egoera degradatzen du, haurren eta amen heriotza-tasa handitzen du, hezkuntza arriskuan jartzen du, haurren, gazteen eta adineko pertsonen zaurgarritasuna areagotzen du, beste gaixotasun batzuen eraginak larriagotzen ditu, ingurumena arriskuan jartzen du, eta arriskuan jartzen du berdintasunean eta justizian oinarritutako garapen-elkar-teak sortzeko aukera.

Munduak agindutakoa bete dezan pertsona pobreek 150 urte itxaron behar badute, neurri handi batean, munduaren benetako konpromisorik ezari zor zaio, ez baitu GIB-HIESaren hondamendiari aurre egiteko konpromisorik hartzen. Pandemia horri erantzuteko, ikuspegi desfasatuei jarraitu besterik ez da egiten. Ez da behar adina baliabide ekonomiko bideratzen (2004an, munduan bilioi bat

dolar baino gehiago gastatu ziren gerran, armetan eta segurtasunean, baina 10.000 milioi baino gutxiago HIESaren aurka borrokatzeko). Beharra duten herrialdeei ez zaie uzten osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak garatzen (epidemiari aurre egiteko bi erremedio eraginkor), zerbitzu horiek sendo ditzaketen profesio-nalak eramaten baitituzte herrialde garatuek. Beste egoera sozial, ekonomiko eta kultural batzuetan neurri batean eraginkorrak izan diren neurriak ezartzen zaizkie herrialde pobretu horiei, baina ez dituzte kontuan hartzen epidemia hedatzen laguntzen duten bizi-baldintzak.

Izurri beltzak, Europako nazien holokaustoak eta Ruandako genozidioak mundua hunkitu zuten, baina, beti bezala, berandu eta gaizki esku hartu zen. GIB-HIESak zorigaitz historiko horiek gainditzen ditu iraupenari, eragindako pertsona-kopuruari eta inpaktuaren hedapenari dagokienez. Berriro ere, munduak isilegi erantzuten du. Kontzientzia indartsurik hartzen ez bada, beranduegi izango da.

MGHen bidez egindako promesak kontzientzia pizteko deia dira. Herrialde askotan, ordea, helburu horiek lortzeko beranduegi da. Baina horrek ez du izan behar helburuetara hurbiltzeko lanari uzteko arrazoia. Helburu horiek osotasunean eta HIESaren epidemiak larriki mehatxatzen duen ekintza-programa bakartzat hartuta, ekintza bizkortuko litzateke. GIB-HIESa MGHak lortzeko saiakera guztiak zapuzten ari den justizia-arazoa dela onartuta, berriro zehaztuko genuke zer egin behar den.

Dokumentu honen helburua da jabearaztea HIESarekin lotutako bidegabekerien aurka ekintza ausartagoak egin behar direla, eta, hala, MGHak lortzen laguntzea. 2005eko ekainean, Nazio Batuek onartu zuten mundua GIB-HIESaren aurkako borroka galtzen ari dela, eta, aurrerapen batzuk egin diren arren, epidemia ez dagoela kontrolpean. Dokumentu honetan, giza egitura eta sistema zapaltzaileetan errotutako elementu zapaltzaile eta gizatasun-kentzailatzat hartzen da epidemia. Egitura horiek menderatze-, zapalketa- eta gehiegikeria-sarea osatzen dute, eta milioika pertsona baztertzat dituzte bidezko eta berdintasunezko mundutik. Sare horren nodo nagusia GIB-HIESa da, eta hortik zabaltzen ditu erroak.

II. ESPARRU KONTZEPTUALA

GIB-HIESak lau indar eragile dituela deritzogu: bat, pobrezia; bi, genero-ezberdintasuna eta horri lotutako botere-egiturak; hiru, gaixotasunak dakartzan diskriminazioa eta estigma; eta, lau, ustiapen globaleko egitura eta jarduera sozioe-

konomikoak. Zenbat eta indartsuagoak izan indar horiek, orduan eta gehiago hedatuko da GIB-HIESa. Zenbat eta gehiago hedatu gaixotasuna, orduan eta handiagoa izango da pobrezia, genero-ezberdintasuna, diskriminazioa eta egitura eta jardura sozioekonomiko bidegabeak finkatzeko eta horiek epidemia betikotzeko probabilitatea. HIESari erantzuteko bi modu menderatzaile dauden munduan agertzen dira lau indar eragile horiek. HIESari erantzuteko moduetako batek erantzun biomediko eta farmazeutikoa eskatzen duen egoera gisa hartzen du epidemia; besteak, berriz, giza portaeraren emaitza gisa hartzen du, eta, ondorioz, portaera hori aldatzeko ekintzak bideratzea eskatzen du.

Bi eredu horiek kritikagarriak dira, GIB-HIESaren berehalako kausa eta zuzeneko ondorioetan bakarrik oinarritzen baitira, eta ez baitie inguruko egitura-arrazoiei aurre egiten. Prebentzioa erantzunaren muinean kokatzeari buruz oro har denok ados egon arren, badirudi gaur egun aplikatzen diren politikak epidemiaren berehalako kausen aurkako borrokara bideratuta daudela (sexu-portaera, amatik feturako transmisioa, odol-transfusioak eta xiringak partekatzea). Baina ekimen horiek pobreziarekin, ezberdintasun sozialarekin, genero-diskriminazioarekin edo Iparra eta Hegoaren arteko harremanekin zerikusia duten gaietaz behar adina arduratzen ez badira, baliteke epidemiak irautea eta bere emaitza bidegabeak betiketzea.

Portaera aldatzearen aldeko ikuspegiak azpimarratu beharreko hutsunea dauka; izan ere, inplizituki onartzen da pertsona orok duela portaera aukeratzeko aukera erreala, eta porrot egiten da portaera osatzen duten faktore sozialak birbideratzeko garaian.

Bidezko sexualitatea

HIESaren transmisio-bide nagusia sexu-harremanak direnez, aztertu behar da sexu-portaerak zenbateraino diren bidegabeak, eta, bereziki, emakumeak eta neskak zenbateraino diren bidegabekeria horren biktimak. Sexu-portaera bartzuek bidegabekeria bikoitza erakusten dute: koitoak berak sexu-bikotekide emakumearen eskubideak urra ditzake, eta, gainera, bikotekidea GIBaz kutsatzeko arriskua ekar lezake.

“Bidezko sexualitatea” nagusitzeko, justizia errespetatu behar da sexu-harreman guztietan. Horretarako, gutxienez, bi printzipio hauek hartu behar dira kontuan:

- Kalterik ez egiteko printzipioa. Printzipio horretan oinarrituta, “sexu-harremanak noizbehinkako lagunarekin, lagun ezberdinekin edo betiko bikotekide ez denarekin izaten dituztenek neurri eraginkorrak hartu behar dituzte haurdunaldia, GIBa eta sexu-transmisiozko beste gaixotasun batzuk eragozteko”.
- Berdintasun-printzipioa: beste pertsonari norberaren balio bera ematen dio. Printzipio horrek, gutxienez, hau eskatzen du: pertsona bat ez da inoiz behartu behar (zuzenean edo zeharka) sexu-harremanak izatera edo beste pertsona batekin duen konpromiso-erlazioa haustera.

Sexualitatearekin zerikusia duten lau arlotan gerta daitezke bidegabekeria-modu zehatz hauek: sexualitatea sexu-jarduera fisikoarekin identifikatzen duten ideia hertsia; sexu-hezkuntza osoa izateko gazteek duten eskubidea ez errespetatzea, ez babestea eta ez betetzea; pertsonaren portaeran eragina izan eta portaera zehaztu dezaketen egoera pertsonal edo sozioekonomikoak kontuan hartzean motzegi geratzen den ikuspegi morala; ez onartzea pertsonak moralki behartuta daudela kontzientziak zuzena dela dioenari jarraitzea, baita agintarien eskakizunen aurka ere –eklesiastikoak edo bestelakoak direla ere–.

HIES-aren tratamendua

HIESaren tratamenduak hau eskatzen du: elikadura egokia, gaixotasun arrunten eta HIESak eragindako infekzioen aurkako medikazio egokia, antirretobiralak (ARV) erabilgarri eta eskuragarri edukitzea, tratamendua eta zaintza eskaini eta kontrola ditzakeen azpiegitura medikoa eta soziala, eta pertsonen ulermena eta laguntza.

Pertsona behartsuentzat oso zaila da elementu horiek guztiak lortzea. Egitura-doikuntzako programek eta ezegonkortasun ekonomikoak eragin negatiboa izan dute pertsona behartsuen elikadura-egoeran, eta arriskuan jarri dute osasun-zerbitzuek pertsonen beharrei erantzuteko duten gaitasuna. HIESa duten gaixoen zaintza pertsonalak familietan eragiten duen karga, nagusiki, emakumeek hartzen dute –berez, lan-karga handiagoa izaten dute eta, gainera, GIBaz kutsatuta egon daitezke–. Are okerrago, batzuetan, neskak eskolatik ateratzen dituzte etxean gaixoak zaintzen laguntzeko, edo etxeko eginbeharren ardura beren gain hartu eta haurrak zaintzeko, amek eta emakume zaharragoek ezin baitituzte lan horiek egin gaixoak zaintzen ari direlako. Egoera horrek bi modutan jartzen du arriskuan nesken etorkizuna: hezkuntzarik jaso ezin dutenez, ez daude behar bezain prestatuta gaur egungo munduan bizitzari aurre egiteko, eta, gainera, ez daude GIBaren aurka babestuta.

Behin GIBa gorputzean sartutakoan, sendagai antirretobiralez baino ezin da kontrolatu. Horiek oso eraginkorrak dira gaixoaren bizitasuna berreskuratzeko, baita hiltorian dauden gaixoetan ere. Behin antirretobiralen (ARV) tratamenduarekin hasitakoan, bizitza osoan jarraitu behar da. Gainera, erabilitako sendagaien aurka birusak gara dezakeen erresistentzia dela eta, birusa duten pertsonak aldizka kontrolatu behar dira ziurtatzeko ez dela erresistentziarik sortu edo beste sendagai batzuk emateko, hala badagokio.

Adibidez, Afrikan, Zambiak du HIESaren aurkako tratamendu-programarik handienetakoa. ARVa eskaintzen die hori behar duten pertsonen %30ari. Tratamendua, ordea, berandu iritsi zen, garapen-bidean dauden beste herrialde askotan bezalaxe. Zehazki, tratamendua garatu eta handik sei urtera iritsi zen. Tratamenduaz lehenago baliatu izan balitz, milioika pertsonen bizitza salbatu ahal izango zen. Oro har, ARV bidezko tratamendua behar duten pertsonen %20k baino gutxiagok jasotzen dute. Gainerakoei hiltzen uzten zaie. Baina, “HIESak hiltzen duen jendeak inori ez dio axola”, horixe da bidegabekeria etengabea. Beharra duten pertsona guztiei tratamendu medikoa eskuragarri jartzea eskatzen duen mugimendu globalak sustrai sendoak ditu ikuspegi humanitarioetan, justizia-ikuspegian eta giza eskubideen ikuspegian.

Justizia eta zuzentasunaren ikuspegitik, ARVaren beste hainbat onura azpimarratu behar dira. Ongizate fisikoa hobetzen du, lanera itzultzea ahalbidetzen baitu tratamenduak, eta horrek nabarmen laguntzen du pobrezia-aren aurka. Familia-ekonomiari eusten laguntzen du. Haurrak gurasorik gabe gelditzea eragozten du. Diskriminazio eta estigmatizazio soziala eragiten dituzten beldur, mito eta gaizki-ulertu ugari ezabatzen ditu. Gainera, osasun-zerbitzuek duten presioa murrizten duenez, ARVaren hornidura unibertsalak –garestia izan arren–, baliabide nazionaletan gehiago aurrezten lagun dezake, Brasilen kasuan ikusten den bezala.

HIESaren tratamenduak onurak dituen arren, oraindik ere galdera batzuk sortzen dira justiziaren, zuzentasunaren, etikaren eta praktikaren alorretan. Tratamenduaren horniduraren eta horren kostuen iraunkortasunarekin zerikusia duten gaiak dira. ARV tratamenduarekin hasten diren pertsona guztiek tratamendua hartzen bizitza osoan jarraitu behar dutenez, hori posible izango dela ziurtatuko duten bermeak izan behar dira. Gaur egun ez dago bermerik; beraz, pertsona horien bizitza, oro har, erabaki politiko eta ekonomikoen mende dago, eta erabaki horiek, ziur, Iparraldeko herrialdeek hartuko dituzte. Tratamendu hori beste

tratamendu garestiago batekin ordeztu behar den kasuetan ere zalantza sortzen da, herrialde behartsuetan ez baitira beti erabilgarri egoten.

Beste galdera batzuk ARVa eskuratzeko zuzentasunari buruzkoak dira. Neurri zorrotzak hartu behar dira emakumeek, landa-eremuetako biztanleek eta bazter-tutako taldeek (adibidez, prostituzioan aritzen diren emakumeak edo presoak) tratamenduaz baliatzeko duten eskubidea errespetatzen dela ziurtatzeko. Haurrak ere ez dira aintzat hartu, arrazoirik gabe. Osasunaren Mundu Erakun-deak kalkulatu du 2005ean 660.000 haurrek behar zutela ARVa, baina %5ek bakarrik eskuratu zutela, eskuragarri ez izateagatik eta/edo haurrentzako ARV bertsioak garestiak izateagatik.

GIB-a-HIES-a eta pobrezia

Ez dago erlazio zuzenik GIB-HIESaren eta herrialde bateko aberastasun- eta pobrezia-mailaren artean. HIESa ez da herrialde behartsuetako gaixotasun bat. Hala ere, aberastasuna gutxi batzuen esku dagoen lekuetan, gehienak oso behartsuak dira, ezin dituzte oinarrizko beharrak ase, eta gizartea zatitu-ta eta desegituratuta dago. Hain zuzen, hori da HIESa hedatzeko haztegi ego-kia. Hala, aberastasunaren banaketa zuzenagoa eragiten duten neurri ekono-mikoak eta sozialak (munduan zein herrialde guztietan), aldi berean, HIESaren aurkako neurri eraginkorrak izango dira. Halaber, gizarte zibila indartzen duten neurriek gobernu-era gardena, egonkorra eta aurreikus daitekeena sus-tatu eta konfiantza soziala sortzen dute. Horiek ere epidemiaren aurkako neu-riak dira.

Ezin da esan GIB-HIESa herrialde edo pertsona behartsuen gaixotasuna dela. Hala ere, badago lotura bat GIB-HIESaren eta pobrezia-aren artean, baldintza sozial eta ekonomikoek GIBaz kutsatzeko arrisku handiagoan ezartzen baititu pertsona behartsuak, eta ahulago bihurtzen ditu. Pertsona behartsuek, nor-malean, malnutrizioa, malaria, tuberkulosia eta bilharzia eta beste parasito batzuek transmititutako infekzioak pairatzen dituzte. Gaixotasun horiek guz-tiek ondorio immunodepresoreak dituzte, eta, hala, pertsonak errazago ku-tsatzen dira GIBaz. Pobrezia-aren ondorioek zaurgarritasuna handitu eta transmi-titzeko arriskua areagotzen dute. Berehalako beharrak estaltzeko presiopean, pertsona behartsuak mementorako bizi dira. Ez dute uste babestu beharreko etorkizuna dutenik, eta, ondorioz, ez dute aintzat hartzen GIBaren infekzioaren aurka babesteko beharra.

GIB-HIESak pertsona behartsuak behartsuago bihurtzeko eragina ere badu. Horren arrazoia da epidemiak kostuak igotzea, sarrerak eta baliabideak murriztea eta baliabideak beste helburu batzuetara bideratzeko beharra dakerrela. Ondasun eta zerbitzuen kostua igo egiten da, industriak prezioak igozen dituen heinean GIB-HIESak haien eragiketetan dituen ondorioak konpentsatzeko. Sarrerak eta baliabideak murriztu egiten dira, gaixotasunagatik edo heriotzagatik lanpostuak ezabatzen diren heinean. Maileguak ez dira ordaintzen. Nekazaritza-produkzioa murriztu egiten da. Adineko pertsonak edo haurrek buru dituzten familiek gutxiago produzitzen dute. Salmenten bolumena jaitsi egiten da, kontsumitzaileek ez baitute baliabide estrarik eta berehalako beharrak justu-justu estaltzea lortzen baitute. Gainera, familia asko beren ondasunak salduz bizirauten saiatzen dira, besteak beste, produkzio-ondasunak (animaliak, makinak edo ekipamendua), eta horrek arriskuan jartzen du etorkizuneko produkzio-gaitasuna.

Horrez gain, dirua, denbora, giza konpromisoa, instituzioak eta sistemak nabarmen desbideratzea eragiten du epidemiak. Hori estatu mailan zein nazioartean gertatzen da, eta pertsona behartsuengan askoz ere eragin handiagoa izaten du, epidemiak baliabide familiarrak eta pertsonalak irensten baitizkie. Aipatutako elementu horiek gaixotasunerantz desbideratzen dira alderdi hauek ordaintzeko: sendagaiak, analisiak, zainketa aringarriak, garbiketa, garraioa, hiletak, dolu-denboraldiak. Umezurtz gelditu diren familiak mantentzeko, familiaren baliabide mugatuak pertsona gehiagoren artean banatu behar dituzte askotan. Etxean HIESa dagoenean, lan-baliabideak gaixotasunaren ondorioak arintzera bideratzen dira.

Egoera horien guztien ondorioa da pertsona behartsuak behartsuago bihurtzen direla. Pobrezia areagotu eta zabaldu egiten da. Zapaldutako pertsonen egoera oraindik zapaltzaileago bihurtzen da, eta kutsatzearen aurrean duten zaugarritasuna areagotu egiten da. HIESaren alderdirik zapaltzaileena, beharbada, pobreen artean hedatzeko moduan eta haien egoera larriagotzeko moduan ikus daiteke argien. HIESak jotako familia eta herrialdeetan “zero pobrezia”¹ esaera bat baino zerbait gehiago da. Zapaldutako pertsonen bihotzetik datorren oihua da, pobrezia kondonatu eta GIB-HIESa gerturatzen dien esplotazio-egoera bidegabe menderatzailetik askatzea eskatzen duena.

¹ Itzultzailearen oharra: ingeleseko bertsioak “*Make Poverty History*” dio, eta Erresuma Batuan pobreziaaren aurka egin zen kanpainari egiten dio erreferentzia. Gure inguruan, kanpaina horren baliokidea “Zero Pobrezia” da.

Emakumeak, genero-ezberdintasuna eta HIES-aren epidemia

Arrazoi fisiologikoengatik, emakumeek eta neskek gizonen eta mutilek baino arrisku handiagoa dute kutsatzeko. Gainera, emakumeen arriskua areagotu egiten dute faktore sozial, kultural eta ekonomikoek eta legezko faktore ugari, horiek guztiak genero-ezberdintasun teorikoetan eta praktikoetan oinarrituta baitaude. Zehazki sexu-mailan, botere-erlazio ezberdinek gizonen mende jartzen dituzte emakumeak. Gizartean ezarritako ohitura batzuen ondorioz ere emakumeak diskriminatzen dira eta haien infekzio-arriskua handitzen da. Hor sartzen dira etxeko, komunitateko eta lantokiko sexu-indarkeriaren hainbat aldaera. Halaber, horrelako ohiturak dira sexu-harremanak nahierara dituzten gizonenganako tolerantzia eta gizon ezkondu adinduek ezkontzatik kanpo emakume gazteagoa izatea. Are gehiago, ohitura batzuek, adibidez, oso gazte ezkontzea, emakume alargunen herentzia², erritu-ablazioak eta “sexu lehorra”³, lehen aipatutako bi ondorioak dituzte: emakumeak objektu gisa tratatzea eta GIBaz kutsatzeko arriskua handiagoa izatea.

Emakumeak gizonak zerbitzatzeko daudela dioen mezua (sexualki zein beste modu batzuetan), goiz transmititzen da heziketa-jardueren bidez. Jarduera horiek gizonen mendeko egoera onartzeko prestatzen dituzte neskak, eta horrek asertibitatea garatzea eragozten die. Iniziazio-unean eta ezkondu aurreko “sukalde-festetan”⁴ behin eta berriz esaten da emakumeen lehen erantzukizuna, beste ezeren gainetik, senarrari atsegin ematea dela, eta horrek emakumeen gutxiagotasun-egoera sendotzen du. Ondorioz, emakume asko psikologikoki ez dira gai senarrengandik GIBaz kutsatzeko arriskuaren aurrean babesteko urratsak emateko.

Afrikako gizartean, munduko beste leku askotan bezalaxe, emakume ezkonduen indarkeria eta abusua jasaten dituzte preserbatiboa erabiltzeko eskatzen badute edo senarrarekin edo bikotekide egonkorrekin sexu-harremanik izan nahi ez badute.

² Ohitura horren arabera, familia politikoko gizonen batek hartzen du alargunaren eta haren seme-alaben erantzukizun ekonomikoa eta soziala.

³ Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde batzuetan, ohitura hori arrunta da. Horren xedea gizonaren sexu-plazera areagotzea da eta, eta, horretarako, baginan hostoak eta substantzia batzuen hautsak jartzen dira baginako jariakinak xurgatzeko. Azterketa batzuek erakusten dute jarduera horrek izugarri handitzen duela emakumeetan GIBaz eta beste sexu-transmisiozko gaixotasun batzuek kutsatzeko arriskua; izan ere jarduera horrek urradurak, lesioak eta trauma epitelialak areagotzen ditu. Iturria: MARK SCHOOF, *Sida, la agonía en África*.

⁴ Ezkontzaren aurretik emaztegaiarentzat egiten de festa. 18 urtetik gorako emakumeek parte hartzen dute. Festa horren helburua da emaztegaiari ezkontzari buruzko aholkuak ematea, esaterako, senarrari nola eman atsegin, etxeko kontuak nola kudeatu eta nola izan ama ona.

Faktore ekonomiko batzuek, gainera, are gehiago handitzen dute emakumeak HIESaz kutsatzeko duten arriskua. Emakumea jabetza izatera pasatzen da, normalean, gizon batekin duen harremanaren bidez. Harremana bukatutakoan, emakumeak etxea, lurra, ganadua, dirua, ibilgailua eta beste edozein ondasun galitzen ditu, gehienetan. Bortxaketaren bidez, gizonak emakumeak haiekiko duten mendekotasuna betikotzen saiatzen dira –eta lortzen dute–, eta haien egoera sozial eta ekonomikoa ahultzen dute.

Murrizketa eta arazo horiez gain, emakumeek GIB-HIESaren zama astuna jasan behar izaten dute. Etxeko ardurak emakumeek beren gain hartzeaz gain, senitar-teko gaixoak eta beren familia handiko edo senarraren familiako umezurtzak zaindu behar izaten dituzte. Birusak kutsatuta egonda edo beste gaixotasun bat edukita ere, emakumeek etxeko lanez arduratzen, familiako kideak zaintzen, bazkaria egiten edo sarrerak sortzen jarraitu behar izaten dute. Emakume askorentzat zaila da ARV tratamendua lortzea, gizonezkoen osasun-beharrei lehentasuna ematen dien kulturaren mende bizi baitira: “emakumeak larritu egiten dira ARVa eskuratzeko dagoen burokrazia guztiaren aurrean. Dokumentu ofizialak sinatu behar dira, eta emakume askok ez dakite ez irakurtzen ez idazten, eta ikararuta sentitzen dira” (IRIN).⁵

Neurri handi batean, HIESak emakumeei egiten dien eraso hori estatus sozial baxuagoa esleitzetik dator. Epidemiak ez luke halako hedapena izango munduan emakumeek tratu bidegabea eta ustiapena jasango ez balute. Afrikan ez luke edukiko gaur egun duen indarra. Gizon gutxiago egongo lirateke kutsatuta. Eta are emakume gutxiago; beraz, haur gutxiago gaixotuko lirateke amatik haurrera egiten den transmisioagatik.

HIESaren aurrean prebentzioan, tratamenduan eta mina arintzean oinarrituta ematen den erantzunak arrakasta izango du, baldin eta neurri zorrotzak, iraunkor-rrak eta zehatzak hartzen badira emakumeek jasaten dituzten aurreiritziak, diskriminazioa eta tratu bidegabea murriztu eta baliogabetzeko. Genero-eraberdintasunaren bidegabekeriaren aurka borrokatzen ez bada, epidemiak hedatzen jarraituko du.

Genero-eraberdintasuna lortzea beharrezkoa da GIB-HIESak emakumeei eragin diezaiekeena kontuan hartuta. Baina, berez are beharrezkoagoa da. HIESarekin edo

⁵ *Integrated Regional Information Networks* (IRIN): NBEaren berri humanitarioen agentzia.

HIESik gabe, emakumeak eta gizonak funtsean berdinak dira. Berdintasun hori errealtate bihurtzea gizabanako, komunitate, erakunde eta herrialde guztien erronka nagusietako bat da.

Estigma eta diskriminazioa

Estigmatizazioa eta diskriminazioa mekanismo ahaltzuak dira, eta eragin bikoitza dute: batetik, GIBaz kutsatutako pertsonenganako mespretxua sortzen dute, eta, bestetik, gaixotasunari aurre egiteko modua are gehiago konplikatzeko die.

GIB-HIESaz kutsatutako pertsonak estigmatizatzen baditugu, sinesgarritasun osoa kenduko diegu eta baliorik gabeko pertsona ezdeus gisa ikusiko ditugu; beren burua ere hala ikusiko dute sarritan. Aitzitik, ez da onartzen estigmatizazioaren ekintza irrazionalak estigmatizatzaileari berari ere kentzen diola gizatasuna. HIESa duten pertsonak balio gutxiagoko pertsona gisa tratatzen ditu estigmatizatzaileak, eta, hala, gizaki bezala duen balioa murrizten zaio.

Estigma eta diskriminazioa hainbat lekutan agertzen dira: etxean, komunitatean, lantokian, osasun-zerbitzuetan, ikastetxeetan, etab. Pertsona horiek giza eskubideen urraketa bizi dute arlo horietan. Modu maltzurrian, GIB-HIESak horrela sortzen duen bidegabekeriak, aldi berean, gaixotasunak bizirautea eta hedatzea eragiten du. Estigmak eta diskriminazioak isiltasunaren eta ukatzearen kultura sortzen dutelako gertatzen da hori, eta hala zaila da gaixotasunari aurre egiteko ekintzak ezartzea.

Estigmak eta diskriminazioak eragiten dituzten bidegabekeriak zoritxar pertsonalaren historia isilak sortzen dituzte gaixotasunarekin bizi direnengan. Infekzioaz kutsatzen diren pertsona asko gaixotasunaren errealtatea onartzeko gai dira. Baina, gehienentzat, askoz ere zailagoa da estigma eta diskriminazioarekin bizitzea. Horiek zalantzan jartzen dute autoestimua, duintasuna eta pertsona izateak dakarrena. Afrikako filosofoiak hau dio: “pertsona bat pertsona da, beste pertsonen bidez”. Pertsonak elkartzen dituzten loturei eraso eginez, estigmak kutsatutako pertsonen gizatasuna ahultzen du, eta askorentzat bizirik jarraitzea ezinezko bihurtzen du.

III. EGITURA ETA JARDUERA EKONOMIKO GLOBALAK

Globalizazioa komunitate eta pertsona behartsuen bizitzan agertu den urteetan, pobrezia eta ezberdintasuna handitu egin dira. Ez dago garbi zenbaterai-

no egotz diezaiokegun horren erantzukizuna globalizazioari zuzenean. Baina globalizazio horrek aberastasun, oparotasun, eragin eta etorkizuneko promesa gehiago ekarri ditu gutxi batzuentzat, eta pobrezia, bazterketa, isilaraztea eta etsipenean gelditzea gehienentzat. Egoera horien larritasunak nabarmen handitu du herrialdeek, komunitateek eta pertsonak GIB-HIESaz kutsatzeko duten sentikortasuna, bereziki, pobrezia eta ezberdintasunak batera epidemia hedatzen jarraitzeko lur emankorra sortzen dutela kontuan hartzen dugunean. Hori dela eta, onartu behar da egitura eta jarduera ekonomiko globalek HIESaren presentzia nagusia bideratu dutela, eta, kasu batzuetan, nagusitasun hori zuzenean eragin dutela.

HIESari buruz gero eta kontzientzia global handiagoa dagoen arren, ikuspegi orokorrak –bereziki portaera-aldaketaren politiketan oinarritzen denak– bi jarreraren arteko konbinazioa dirudi: batetik, kontu handiagoa izatea, eta, bestetik, gaitza besteen arazo bihurtzea⁶. Alegia, ez uztea epidemia egungo puntu nagusietatik harantzago hedatzen; talde baztertuetara mugatzea (prostituzioan aritzen diren pertsonak, homosexualak, zainen bidez injektatzen diren drogekiko mendekotasuna dutenak, garapen-bidean dauden herrialdeetako pertsona behartsuak...). Hau da, HIESa “besteen” arazo bihurtzea, “hor kanpoan” dagoena eta “haiei” dagokiena, eta ez “guri”. Argi dago, horrek estigma eta diskriminazioa politika globalen erdian kokatzen dituela, ezinbestean. Horrenbestez, praktikan, GIB-HIESa gaixotasun globala dela ukatzen da, eta, ondorioz, ez dago halako kezka globalik. Baina gizarte globala porotsuegia da, malguegia, interkonektatuegi dago, horrek funtziona dezan.

Zehazki, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Moneta Funtzak (MB eta NMF, hurrenez hurren) kritika ugari jaso dituzte azken urteetan haien egitura-doi-kuntzako programek osasun- eta hezkuntza-zerbitzuetan izan duten inpaktu handiaren ondorioz. Kritika horien bidez –zakarkeri zorrotzetatik hasi eta ebaluazio akademiko landuetaraino–, HIESaren epidemiaren hedapenarekin lotzen dituzte politika horiek. Stephen Lewis-ek hau idatzi zuen: *“Afrikak pandemiari behar bezala erantzuteko ezintasunaren arrazoi nagusietako bat da erabiltzaileek osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak erabiltzeko ordaindu behar dituzten tasak”*. Kritiken arabera, erakunde horiek egonkortasun ekonomikoari eman zioten lehentasuna, behar sozial eta giza eskubideen oso gainetik, bizitzeko eta osasun onerako eskubideak barne.

⁶ Itzultzailearen oharra: ingelesezko bertsioan, “*Otherisation*”.

Nazioarteko merkataritzaren egiturak HIESarentzat garrantzitsuak dira bi arrazoiengatik. Batetik, egitura horiek zerikusi handia dute herrialde bateko pobrezia bere horretan uztearekin edo gainditzearekin. Bestetik, Merkataritzarekin lotutako Jabetza Intelektualaren Eskubideen Alderdiei buruzko Itunak (*TRIPS*, ingelesez) zerikusi handia du HIESari erantzuteko sendagai antirretrobiralen eta beste teknologia batzuen erabilgarritasunarekin eta fluxuarekin.

Behartsuen eskubide ekonomiko eta sozialen aldeko borroka zabalagoan oinarritu behar dira gaixotasuna prebenitzeko ahaleginak. Nolanahi ere, gaur egungo nazioarteko harreman komertzialek ez diete onurarik ekartzen Afrikako eta munduko beste eskualde batzuetako herrialde behartsuei. Are gehiago, herrialde aberatsenen onerako bideratuta daude nabarmen, eta merkatu horietara herrialde behartsuetako produktuak sartzea eragozten duten hesiak sortzen dituzte. Prozesu bidegabe global horrek pobrezian betikitzen ditu herrialde behartsuak, eta, horregatik, HIESaren epidemiara kondenatzen ditu. Ia gauza bera esan daiteke kanpo-zorrari dagokionez; horren ondorioz, osasunerbitzu publikoetarako baino diru gehiago bideratu behar dute herrialdeek diru-itzultzera. Zorraren ordainketa amaiezinak pobreziatik irteteko herrialdeen gaitasunari ezartzen dizkion mugak HIESari erantzuteko gaitasunaren mugak ere badira.

TRIPS itunak berrikuntza teknologikoarekin eta horren transmisio eta hedapenarekin zerikusia duten arlo guztiak hartzen ditu kontuan. HIESari dagokionez, horrek garrantzia du, akordio horren barnean sartzen baita Europan eta Estatu Batuetan enpresa farmazeutiko erraldoi gutxi batzuek garatutako sendagai antirretrobiralak eskuratzea ere. Gaixotasunarekin zerikusia duten beste teknologia batzuk ere aipatzen ditu akordio horrek, esaterako, GIBa diagnostikatzeko probak haur txikienentzat.

Munduko Merkataritza Erakundeak GIB-HIESetik eta beste epidemia batzuetatik eratorritako osasun publikoaren arazoak onartu ditu, eta TRIPS itunaren malgutasunei probetxu ateratzeko eskatu die estatu kideei. Aurrerapenen bat egon den arren, gaixotasunaren arloan lan egiten dutenak bat datoz honekin: 2005eko abenduan adostutako erreforma berrienekin ere, araudiak oraindik ez duela uzten sendagaiak (berezi orain dela gutxi garatutakoak) prezio eskuragarrietan erabilgarri jartzen. Herrialde behartsuenei bizirik jarraitzen laguntzeko sendagaiak garatzen, manufakturatzen edo inportatzen utziko dien legezko bidea irekitzeko, oso lan gutxi egin da orain arte.

IV. HIES EPIDEMIAK DITUEN ONDORIOAK

Pertsonen mugikortasuna

Biztanleriaren eskala handiko mugikortasunak GIBa eta HIESa azkar eta izugarri hedatzea bultzatu zuen. Eta hala jarraitzen du. Kalkulatzen da 150 milioi pertsona bizi direla beren herrialdetik kanpo behin betiko edo luzaro. Horrez gain, herrialdean bertan, landa-ingurunetik hirira migratzen duten milioika pertsona daude. Bai herrialde barneko bai nazioarteko migrazio askoren jatorrian faktore ekonomikoak daude. Normalean, migratzaileek hobeto ordaindutako lana bilatzen dute. Borondatez migratzen ez duen jende asko ere badago. Hor sartzen dira gatazka edo gerra zibiletako errefuxiatuak eta hondamendi naturalek eta beste gatazka-mota batzuek eragindako desplazatuak.

Herritar ibiltariak GIBarekiko duten zaugarritasuna handitzen dute gehiegizko mugikortasunak, arau eta ohitura babesleak bereizteak, arrisku handiko edo isolamenduko lanak, mugako formalitateen iraupenak edo sexu-negozioak. Pertsona horien kezka nagusia berehalako biziraupen fisikoa eta behar ekonomikoa direnez, etengabe mugitzen ari diren pertsona askok GIBa urrutiko arriskua hartzen dute. Baina bidaietan edo helburuko lekuetan, horietako asko gaitasuna transmititzeko egoera ezin hobeetan bizi dira.

Lekuz aldatzen diren biztanleak GIBarekiko duten zaugarritasunetik sortzen dira zuzentasunari eta justiziari buruzko gai asko: pertsonen trafiko-mota guztiekin lehenbailehen amaitu beharra; migratzaile denek osasun-zerbitzua, probak, zainketak, tratamendua eta laguntza-zerbitzuak jasotzeko aukera izatea, eta zerbitzu horiek erabiltzeko bultzada ematea. Halaber, beste gai hauek ere multzo berekoak dira: GIB-HIESa duten migratzaileak beste herrialde batean daudenean jasaten duten diskriminaziotik eta xenofobiatik babestea eta ARVak hartzen hasi ziren lekuan bizitzen jarraitzeko aukera ematea. Beste gai hauek ere garrantzitsuak dira: GIBarekin zerikusia duten arrazoiengatik sarrera blokeatzen ez duten –edo deportazioa eskatzen ez duten– atzerriko erregulazioak ezartzea; mugetan bisen eta merkantziei buruzko dokumentazioaren tramitazioa azkartzea, atzerapenengatik sortutako infekzio-arriskua saihesteko; nekazaritzako eta itsasoko sasoikako langileen, etxeko langileen eta meatzarien bizi- eta lan-baldintzak hobetzea; eta jatorrizko lekuetan lan-aukerak hobetzea eta garatzea, arrazoi ekonomikoengatik migrazio gutxiago gertatzeko.

Adituen ihesa

Gaixotasunak larriki eragindako herrialde askok (nagusiki behartsuenak) beste zailtasun bat dute GIB-HIESari aurre egiteko: osasun-arloko profesionalak (edo beste arlo batekoak) herrialde aberatsetara joaten dira. Epidemiari erantzuna ematea zaila da osasuneko profesionalak lekuz aldatzearen ondorioz, bai herrialdean bertan (landa-inguruetik hirira, sektore publikotik pribatura eta lehen mailako osasun-sektoretik bigarren eta hirugarren mailako espezialitateetara), bai garapen-bidean dauden herrialdeetatik herrialde aberatsetara (adibidez, Zambiatik Botswana).

Osasun-sektorean lan egiten duten adituen ihesak are gehiago presionatzen ditu lehendik ere hauskorrak diren kontinente osoko osasun-sistemak, milaka pertsona ARVa banatzeko borrokan. Egoera horretako ezohiko kasu bat da garapen-bidean dauden herrialdeetako heziketa-programak bultzatzen dituzten herrialdeen joera: hobekien prestatuta dauden adituak eramatea, prestakuntza amaitutakoan eta esperientzia pixka bat hartutakoan.

Beste arazo bitxi bat da herrialdeetan ARVak hornitzeko lanaren ondorioz oinarriko beste osasun-behar batzuetarako langile-falta areagotzen ari dela. Kanpotik finantzaturako GIB-HIESaren programek Osasun Ministerioek baino soldata eta lan-baldintza hobekien eskaini ohi dituzte. Beraz, nazioarteko lankidetzak finantzaturako programek sektore publikoak baino gehiago erakartzen dituzte sendagileak, erizainak, farmazialariak eta teknikariak. Ondorioz, lehendik ere ahulak diren osasun-zerbitzu nazionalak are gehiago ahultzen dira.

Gazteengan duen eragina

HIESaren epidemia aurrera doan neurrian, mundua jabetzen ari da gaixotasunak hainbat modutan eragiten duela, bereziki, gazteenen kasuan: haurrak (umezurutzak barne) eta hogeita bost urtetik beherako pertsonak. Umezurtzen kasuak garrantzi berezia du, gaixotasunak iraganarekin lotzen dituen lapurtzen baitie, oraingo aukerak gutxitzen baitizkie eta etorkizuna arrisku larrian jartzen baitie. Hogeita bost urtetik beherako gazteek kezka handia sortzen dute, HIESaren belaunaldia baitira. Inoiz ez dute ezagutu HIESik gabeko mundua. Gainera, adin horretan dute kutsatzeko arriskurik handiena. Izan ere, helduen arteko kutsatze berrien erdia hamalau eta hogeita bost urte bitarteko gazteetan gertatzen da (GIB-HIESa duten pertsona guztien %28 osatzen dute).

Umezurtzekin eta beste haur zaurgarri batzuekin zerikusia duen justizia-arazo nagusia da ez direla sartu epidemiari eman zaizkion erantzunen maila guztietan. Adibidez, Zambiako gobernuak onartu du ez diela behar adinako lehentasuna ematen talde horretako arazoei. Pobreziaren aurka Borrokatzeko Estrategiari buruzko dokumentuek⁷ ere ez dute umezurtzen beharrekiko konpromiso sendorik jasotzen. Horietako askotan, gainera, ez dira aipatu ere egiten. UNICEFek eta GKE garrantzitsu batzuek umezurtzei eta, oro har, haur zaurgarriei eraginkortasunez laguntzeko eta esku hartzeko eskatzen dute mundu osoan, eta eliza ezberdinetako erakundeak oso ongi erantzuten ari dira oinarritzko mailetan, hain zuzen, arazoak benetan sortzen diren lekuan. Erakunde-mota horiek ugaritzen ari dira, batez ere, motibazioa fedean aurkitzen duten boluntario-taldeek osatzen dituzte. Babes handia ematen diete Afrikako umezurtzen belaunaldiei. Hala ere, erakunde erlijioso horiek oraindik lan gehiago egin dezakete GIB-HIESaz kutsatutako umezurtz, haur eta familiak zaintzeko mobilizazioari lehentasun handiagoa ematen badiote; halaber, gai horri buruz sarriago hitz egiten badute ospakizun erlijiosoetan eta beste abagune batzuetan, eta gobernuarengan eta gizarte zibilarengan presioa egiten jarraitzen badute, haurren beharrak aintzakotzat har ditzaten.

Hautzaroaren aurkako bidegabekeriak beste modu batean ere gerta daitezke, esaterako, familiak hausten direnean aita edo ama hiltzearen ondorioz, edo umezurtzak edo kaleko haurrak hiritik landa-ingurunera “aberriratzten” dituztenean. Oso garrantzitsua da anai-arreba umezurtzak elkarrekin egotea, haien ongizate emozional eta psikologikoarentzat. Are gehiago, landa-ingurunera bidaltzen direnean (hildako gurasoak handik zetozela uste baita), etorkizunari eragiten dioten erabakietan parte hartzeko umezurtzen eskubidea urratzeaz gain, arazo sozial handiak sortzen dira sarritan, eta horrek frustrazio eta zoritxar handia eragiten die bai haurrei, bai herrietako pertsoneri. Arlo horretan ere, haurrei eragiten dien gauza guztietan, beharrezkoa da printzipio honi atxikitzea: haientzat onura gehien dakarrenari eman behar zaio lehentasuna.

GIB-HIESaren eta gazteriaren arteko erlazioak gai ugari hartzen ditu barnean, eta horietako lauk garrantzi handia dute justiziaren arloan:

1. Hogeita bost urtetik beherako gazteak munduko biztanleriaren ia erdia izan arren, nerabeei eta gazteei ez zaie ematen beren eskakizunak adierazteko behar adina aukera.

⁷ Itzultzailearen oharra: dokumentu horiek (ingelesezko *PRSP* siglen bidez ezagutzen dira) herrialde behartsuetako gobernuek egiten dituzte, kanpo-zorra arintzeko eta programak finantzatzeko.

2. Gazte gehienek GIB-HIESari buruz zerbait badakiten arren, gaur egun oraindik ez dute behar adina informazio egoki eskuratzeko aukerarik.
4. Nerabeek eta gazte helduek zailtasunak dituzte osasun-zerbitzuez eta GIBaren probez baliatzeko.
4. Gazte askok ez dute ez segurtasun ekonomikorik eta ez lanean hasteko aukerarik. Hala, langabetuen erdia hogeita bost urtetik beherako pertsonak dira.

Gazteentzako lanpostu eta lan-aukeren falta HIESaren aurkako estrategia globaletan galdutako funtsezko elementua da. Horrek ez du esan nahi gazteek zeregin gutxi dutenean portaera arriskutsuak hartzeko denbora gehiago dutenik. Arazoa da giza duintasuna eta autoestimua garatzeko aukerak kentzen zaizkiela.

Adineko pertsonengan dituen eraginak

Garapen-bidean dauden herrialde askotan, HIESak bi modutan handitu du adineko pertsonen zuten karga. Batetik, seme-alabak hiltzearen ondorioz, haiek eman-go lieketen laguntza finantzarioa eta bestelako laguntza-motak galtzen dituzte. Bestetik, adineko pertsonen duten hauskortasunaz eta sarritan pobreziaz gain, umezurtzen ardura eta zaintza beren gain hartu behar dute. Adineko pertsonak beti arduratu izan dira modu batera edo bestera gazteagoak zaintzeaz. Baina HIESaren ondorioz, ardura hori izugarri handitu da.

Umezurtzak zaintzeko gero eta ardura handiagoa dute gizarteko kiderik ahulenek: adineko emakumeak, normalean oso behartsuak eta osasun txarra dutenak. Familia-eredu berezi bat garatzen ari da, ezaugarri honekin: sarritan ez dago tarteko gizon-emakumeen belaunaldirik, elkarri laguntzen dioten adineko pertsonak eta gazteak bakarrik daude. Zaintzaz arduratzen diren adineko pertsonak larri sentitzen dira, ez baitakite kide gazteenak zaintzeko gai diren, baina erantzukizun hori onartzen dute, ez baitago horretarako beste inor. Adinaren ondorioz, adinekoen osasun-egoera ez da oso ona izaten, eta okerragotu egiten da zaintzaren erantzukizuna hartzeagatik sortzen den tentsioaren eta estresaren ondorioz. Horrek kezka handia sortzen die askori, gainezka egiten die.

Justiziaren eta zuzentasunaren printzipioekin konprometituta dagoen gizartearen adierazgarri da zaintzaile hain ahul horietaz arduratzeko modua. Hala, bi galdera sortzen dira:

1. Pertsona horiek nola egin diezaiekete aurre zaintzatik eratorritako eskaera psikosozial eta ekonomikoei?
2. Nork zainduko ditu pertsona horiek beren buruaz eta beren zaintzapean daudenez arduratzeko gai ez direnean?

Zaintzaile zaharrenak babesteko ezohiko neurriak hartzeko arrazoi garrantziatsuak daude. GIBaz kutsatutako hurrekin gertatzen den bezala, talde hori ere oso ahula da. Baina umezurtzen kasuan ez bezala, talde horri ez zaio ia kasurik egiten. Nazio Batuen Erakundeak adineko pertsonen beharrak babesteko neurriak hartzea proposatu du, baina orain arte, gobernu gutxik egin dute zerbait (nahiz eta dirua zuzenean transferitzeko esperientzia pilotu batzuek arrakasta izan eta egoera hori aldatzen lagun dezaketen).

Lurraren zaurgarritasuna

GIB-HIESak zuzenean eta zeharka eragiten die sistemei gaixotasunaren eta heriotzaren bidez. Eta ez giza sistemei bakarrik (esaterako, hezkuntza- edo osasun-sistema), baita sistema ekologikoei ere –gizakiak mendekotasun handia du sistema horiekiko–. HIESak lanean eta ekonomian duen eragin gogorra jasaten duten familiek, baliabide naturalak modu jasangarrian erabiltzeko gaitasunik gabe gelditzen dira. HIESaren ondorioak arintzeko denbora, energia eta dirua gastatu behar denean, eta etxean lan egin dezaketen pertsona gutxiago daudenean, ez da lehentasunen artean sartzen epe luzerako ingurumen-egoeragatiko kezka. Ondorioz, baliabide naturalak gehiegi ustiatzeko eta gaizki kudeatzeko arrisku handiagoa dago.

Baliabideak erabiltzeko jakintza eta trebetasunak belaunaldien artean transmititzeko ezintasunak ere gehiegizko ustiapena eragiten du. Landa-ingurunekeo herriek badakite erlazio orekatua eduki behar dela ingurunearekin, hark mantentzen baititu. Hainbat mendeetako esperientziak ekarri ditu herrientzako emaitza onak sortzen dituzten nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-ereduak eta, oro har, ingurumen-kudeaketako ereduak, eta horrek aldi berean ingurumenari kalterik ez egiten laguntzen du. Erlazio orekatu horri eusteko jakintza eta trebetasunak transmititzen dira belaunaldi batetik bestera, baina ez formalki, baizik eta belaunaldi gazteek zaharragoengatik jasotzen duten ikasketa informalaren bidez. Transmisio hori galtzeko arriskuan geratzen da HIESaren ondorioz. Jakintza hori duten belaunaldiko hainbat pertsona hil egin dira (edo oso gaixo daude), eta, beraz, ezin zaie belaunaldi gazteei transmititu. Horren ondorioz,

ingurumen-degradazio handia sor dezakete alderdi hauek: gehiegizko arrantza, urte-sasoi egokietan ez arrantzatzea, zuhaitz-espezie batzuk ez babestea, ur-kanalizazioak ez zaintzea edo euri-ura nora doan ez kontrolatzea.

GIB-HIESaren bidez, “gure haragia eta odola, lurra, hiltzen ari da”. Baina badirudi oso gutxiri axola zaiela hori. GIBak giza gorputzean sortzen duen kaltea HIES bihurtzeko urte askok igaro behar dute. Lurrarekin ere gauza bera gerta liteke. Epidemiak gizakien edo haien ingurunearen etorkizuna arriskuan ez jartzeko modu berriak aurkitzeko erantzukizuna du gaur egungo belaunaldiak. Hori egungo belaunaldiekiko, etorkizuneko belaunaldiekiko eta lurrarekiko justizia-arazoa da, izan ere, izaki guztiek behar dugu lurra bizirauteko.

V. ELIZA KRISTAUAK GIB-ARI ETA HIES-ARI EMATEN DIOTEN ERANTZUNA

Aintzat hartu eta onartu behar da erlijio nagusiak eta, bereziki, eliza kristauak lan handia egiten ari direla GIBaren inpaktua prebenitzeko, zaintzeko, laguntzeko, tratatzeko eta murrizteko. Arlo horretan egiten dituzten jarduerak giza eskubiak bermatzeko bideari lotzen zaizkio, eta horrek bizitzaren kultura, gizabana-koen alderdi sakratua errespetatzea eta bizitza ospatzea sustatzen du. Jarduera horiek irakaskuntza sozialean ere oinarritzen dira, eta behartsuak baztertzen eta genero-berdintasuna eta emakumeen duintasuna ukatzen dituzten ekonomia, politika eta egitura sozialak aldatzearen alde egiten dute argi eta garbi. Laburbilduz, HIESaren aurkako ekintza-lerro nagusi batzuk zehazten ari da eliza-ren irakaskuntza. Komunitate sinestunek jende xeheenarekin dituzten hurbileko harremanak, etxean zein beste edozein lekutan, are gehiago indartzen ditu epidemiatik sortzen diren arazoei aurre egiteko gaitasunak.

Jendearekiko hurbiltasuna eta esperientzia handia dute Zambiako elizek, eta onartu dute ez dela ez eraginkorra ez nahikoa GIBa esku hartzeko objektu bat balitz bezala tratatzea, testuinguru sozial eta ekonomikotik isolatuta. GIBak eta HIESak sortzen dituzten alderdi medikoak eta jarrerak onartzen dituzte, baina ez dute uste epidemiari kanpotik aurre egitea nahikoa denik preserbatiboaren, HIESaren probaren edo antirretrobiralen esku-hartze teknologikoen bidez. Haien ustez, horrez gain, hurbilketa holistikoago bat egin behar da, garapen pertsonal eta ekonomikoaren arazoak ere barne hartzen dituena. Ondorioz, elizaren jarduerara gero eta gehiago ari da bideratzen garapen sozial eta ekonomikora, tradizionalki elizaren kezka nagusia garapen pertsonala izan dela kontuan hartuta.

Hori dela eta, osasun- eta hezkuntza-arloko jarduera tradizionalaz gain, Zambiano eliz taldeak alderdi hauen alde ari dira lanean: nekazaritza hobetzea, edateko ura eskuratzeko aukera eta saneamendua hobetzea, bizibideak hobetzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna onartzea, haurren eta helduen elikadura hobetzea eta azpiegiturak garatzea. Jarduera horiek guztiak GIBa transmititzeko hain egokia ez den ingurunea sustatzera bideratuta daude. Kasu gehienetan, elizek zeregin horiek egitean ez dute onartzen esplizituki GIBa eta HIESa kontrolatzen laguntzen ari direnik.

Gauza asko egin diren arren, oraindik egin lan asko dago egiteko: epidemiari buruz gehiago eta zintzotasunez hitz egitea, ahal den guztietan; erabat baztertua estigmatizatzen edo diskriminatzen duen konnotazioa agerian jartzen duen adierazpen, iritzi edo jardura oro; gogo handiagoarekin lan egitea pobrezia eta emakumearen diskriminazioa kentzeko zeregin nagusietan; komunitateak mobilizatzea, hainbat umezurtz hartzeko desafioren aurrean giza erantzun masiboa eta eraginkorra emateko; komunitateko kideen artean ekintzak sustatzea GIBaren transmisioa murrizteko, bidezko sexualitatea sustatzeko, kutsatutakoen zaintza eta laguntza bultzatzeko eta gaixotasun eta epidemiaren inpaktuak arintzeko.

HIESaren garaia zalantza asko eragin ditu. Horrez gain, desafio handiko garaia da, baita Jainkoaren graziakoa ere. Egungo egoeran Jainkoa bilatzeko eta GIBak eta HIESak eragiten duten krisiaren bidez Jainkoak esaten diona entzuteko erantzukizuna du Elizak. Halaber, beste batzuei Jainkoa esperimendatzen lagundu behar die, baita GIB eta HIESaren egoeretan ere. Laburbilduz, Elizaren erantzukizuna da GIBaren eta HIESaren garai honetan Kristok egingo lukeen bezala bizitzea, hitz egitea eta jardutea; Kristo izan behar du gaixo daudenentzat, Kristoren esperantza eta garaipen seguruaren mezua ekarri behar die sufritzen ari diren pertsoneri, sufritzen ari den munduari.

VI. ONDORIOA

Azterketa honek hiru ikuspegi ditu:

1. HIESaren eta oinarritzko lau zergatien arteko sinergia sendoa: pobrezia, genero-berdintasuna eta botere-egiturak, estigma eta diskriminazioa eta neurritz kanpoko egitura eta jardura ekonomiko globalak.
2. Justizia-jarduerak oso lotuta daude GIBari eta HIESari dagozkien erantzunekin.

3. HIESa eta justizia-arazoak oso lotuta daudenez, justiziaren izenean egiten diren ekintzak ia automatikoki epidemiaren aurkako ekintzak izango dira.

Pobreziak, emakumearen estatus baxuak, gaixotasunak sortzen dituen estigmak eta diskriminazioak eta ekonomia globalaren neurritz kanpoko jarduerak oinarritzat dituzten egitura bidegabeak kendu eta, horien orde, egitura eta ohitura zuzenak ezartzen badira, immunoeskasiaren birusak aurrera egiterik izango ez duen eremua sortuko da. Halaber, epidemiaren aurkako ekintzak justiziaren aldeko ekintzak izango dira. Gure txostenak erakusten duen bezala, HIESaren egoera eta hedapena indar bidegabeen araberakoak dira, eta horietako gehienak GIBaren eta HIESaren programek kontuan hartzen ez dituzten arloetatik datoz. GIBari eta HIESari aurre egiteak egoera bidegabeak lantzeko sarrera eta katalizatzaile gisa balio dezake. Laburbilduz, hau esan daiteke: zenbat eta GIB-HIES gehiago, orduan eta justizia gutxiago, eta zenbat eta justizia gehiago, orduan eta GIB-HIES gutxiago.

JCTRREN (JESUIT CENTRE FOR THEOLOGICAL REFLECTION) GOMENDIOAK GIB-ARI ETA HIES-ARI ERANTZUTEN DIOTEN EKINTZAK EGITEKO: JUSTIZIA-IKUSPEGIA

Michael Kellyk egindako azterlanean oinarrituta, Hausnarketa Teologikorako Jesuiten Zentroan (JCTR) gomendio zehatz batzuk ematen ditugu, hark proposatzen dituen erronkei erantzuteko egin daitezkeen ekintzetarako. Ekintza horiek bat datoz guztientzako –bereziki behartsuentzako– justizia sozial handiagoaren alde egiteko dugun konpromisoarekin.

Gobernua

- Pertsonak GIBaz-HIESaz kutsatzen diren ingurune sozioekonomikoetan arreta handiagoa jarri behar luke, adibidez: pobrezia-baldintzak, hezkuntza-aukerak, osasun-zaintza oro har, lan-aukerak, etab.
- Pertsonetara bideratutako garapena definitu behar luke, eta ez hazkunde ekonomikoan eta aberastasunaren sortzean oinarritutakoa bakarrik.
- Emakumeen aldeko justizia handiagoa sustatu behar luke, emakumeak ezgaitzen dituzten egiturei eusten dieten ekonomiako, egitura sozialetako eta kulturaletako arloetan ekintzak bideratuz.
- Umezurtzen eta egoera zaurgarrian dauden haurren populazio-hazkunderen erronka seriotasun handiagoz hartu behar luke babes-, zaintza-, hezkuntza- eta osasun-programen bidez.

Nazioarteko dohaintza-emaileak

- Zambian eta antzeko herrialdeetan pertsona gehienei sufrimendu sozial handia eragin dieten erreforma ekonomikoak kritikoki aztertu eta baztertu behar lituzkete.
- Merkataritza-akordio bidegabeen erreforma sustatu behar lukete, zehazki garapen-bidean dauden herrialdeetan pobrezia sortzen dutenak (adibidez, nekazaritzarako diru-laguntzak) edo sendagai merkeak eskuratzea mugatzen dutenak (adibidez, MMEari buruzko erregulazioak).

- Sendagaietatik eta portaeratik harantzago doazen esku-hartzeak bultzatu behar lituzkete, adibidez, guztientzako hezkuntza-aukerak gehitzea, bereziki, neskentzat.
- Gobernuei “inpaktu azkarreko” ekimenak egitera bultzatu eta horiek gauzatzeko lagundu behar liekete, adibidez, eskoletako elikadura-programak, hezkuntzako lorpenak gehitzeko eta elikadura ona sustatzeko.

Eliza

- Bizitzako arlo guztietan justizia sozial handiagoaren alde egiten jarraitu behar luke, eta bere justizia-adierazpenaren bidez bultzatu behar luke hori.
- GIBaz-HIESaz kutsatutako pertsonekin zerikusia duen estigma edo diskriminazioa gaitzetsi eta errotik kendu behar luke.
- Bere irakaskuntza morala ikuspegi holistikoagotik aztertu behar luke; alegia, “preserbatiboa erabiltzeari buruzko eztabaida” miopea baztertu, eta “bidezko sexualitateari eta sexualitate arduratsuari” buruzko eztabaida zabalagoari heldu behar lioke.
- Emakumeekin lotutako justizian arreta handiagoa jarri behar luke, bai elizan, bai gizartean, familiarteko bizitza sendotzeko; izan ere, emakumeek hartzen dute GIBak-HIESak suntsitutakoaren erantzukizun soziala.
- Gazteei hezkuntza-aukera gehiago eskaini behar lizkieke, alderdi hauetan: pertsonaren garapen osoa, bizitzarako gaitasunen ikaskuntza eta heziketa morala, erabakiak hartzean parte hartzea eta bizitzako erronkei heldutasunez aurre egiteko gaitze orokorra.

Medikuntzako eta erakundeetako profesionalak

- GIBari-HIESari buruzko beste osasun-arazo batzuk ere landu behar lirateke, eta ez antirretobiralen hornidurara bakarrik.
- Gobernuei eta dohaintza-emaleei presioa egin behar liekete pertsona guztientzat osasun unibertsala sustatzeko, horien egoera finantzarioa kontuan hartu gabe.
- Osasun-arloko langileen lan-baldintzak hobetzeko presioa egin behar luke, horrek osasun-zerbitzu egokia ziurtatu eta “adituen ihesaren” inpaktua murriztuko bailuke.

GKEak

- Justizia-arazoak eraginkortasunez sustatu behar lituzkete, bereziki, emakumeen eta gazteen “jabekuntzarekin” eta adineko pertsonen zaintzarekin zerikusia dutenak.
- GIBa-HIESa hedatzeko ingurunea sortzen duten jarduera tradizionalei edo kulturei aurre egin behar liekete.
- GIBarekin-HIESarekin lotura handiagoa duten arazo ekologikoetan arreta handiagoa jarri behar lukete.
- *JCTR Basic Needs Basket* laguntzeko tresna gisa erabili behar lukete elikadura hobea eta etxebizitza ziurtatzeko (adibidez, aurrekontu arduratsuak).

Familiak

- Benetan bidezkoa den sexu-erantzukizunaren kultura bultzatu behar lukete.
- Autonomiari, lan gogorrari eta komunitatea zaintzeari buruzko balioak irakatsi behar lituzkete.

M. Kellyren azterlanetik eratortzen diren gomendioetako batzuk baino ez dira horiek guztiak. Gainera, guztiek onartzen dute GIBaren-HIESaren pandemia eraginkorra izango dela eta justiziaz egingo zaiola aurre, baldin eta Kellyk azterlanaren oinarrian argudiatu dituen hiru alderdi hauei erantzuten bazaie:

- HIESaren eta oinarrizko lau zergatien arteko sinergia sendoa: pobrezia, genero-berdintasuna eta botere-egiturak, estigma eta diskriminazioa eta neurritz kanpoko egitura eta jarduera ekonomiko globalak.
- GIBari eta HIESari dagozkien erantzunak oso lotuta daude justizia-jarduerekin.
- HIESa eta justizia-arazoak hain lotuta daude, justiziaren izenean egiten diren ekintzak ia automatikoki bihurtzen direla epidemiaren aurkako ekintzak.

*JCTR*tik, GIBari-HIESari justiziaren ikuspegitik erantzuteko gurekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu.



EZTABAIDARAKO ETA EKINTZARAKO GALDERAK

- Zer elementu berri ikusi dituzu testuan?
- Zer alderdik harritu zaituzte?
- Zer gehituko zenuke?
- Egin mapa kontzeptual bat HIESaren birusa duten pertsonen errealitatea eta gaitzak haien garapenean dituen ondorioak identifikatzeko. Zer ikusten duzu? Konparatu eta erantsi gainerako taldekideen ekarpenak.
- Zein dira talderik ahulenak? Zer egin daiteke haien egoera hobetzeko?
- Ezagut itzazu munduan HIESaren birusak kutsatutako pertsonen errealitateari buruzko datuak; horretarako, aztertu testuan agertzen diren alderdiak.
- Aztertu komunikabideetan agertzen den informazioa: albisteak, publizitatea... Gai horri buruzko albisterik agertzen da? Zer ikuspegitik eginak daude agertzen direnak? Zergatiak, ondorioak... aurkezten dituzte? Konponbiderik proposatzen dute?
- Egin testu honi buruzko iruzkinak eta pentsatu HIESaren eragina munduan murrizteko proposamenak: “lau indar eragile: bat, pobrezia; bi, genero-ezberdintasuna eta horri lotutako botere-egitura; hiru, gaixotasunak dakartzan diskriminazioa eta estigma; eta, lau, ustiapen globaleko egitura eta jarduera sozioekonomikoak”.

- Egin testu honi buruzko iruzkinak eta aztertu lehen pentsatutako proposamenak oinarritzat hau hartuta: “HIESari erantzuteko bi modu menderatzaile daude: batek, erantzun biomediko eta farmazeutikoa eskatzen duen egoera gisa hartzen du epidemia; besteak, berriz, giza portaeraren emaitza gisa hartzen du, eta, ondorioz, portaera hori aldatzeko ekintzak bideratzea eskatzen du”.
- Zer iradokitzen dizu Nazio Batuetako idazkari ohi Kofi Annanen azalpen honek: “Egindako azterlan guztiek erakutsi digute ez dagoela emakumearen autonomia baino tresna eraginkorragorik garapena sustatzeko. Bestelako politika bakar batek ere ez du produktibitate ekonomikoa handitzeko edo haurren heriotza-tasa eta amatasunak eragindakoa gutxitzeko horrenbesteko aukerarik. Bestelako politika bakar batek ere ez du elikadura hobetzeko eta osasuna sustatzeko horrenbesteko indarrik, GIB-HIESaren prebentzioa barne. Bestelako politika bakar batek ere ez du hurrengo belaunaldiaren hezkuntza-aukerak handitzeko horrenbesteko ahalmenik...”⁸.
- Zure ustez, zer egin dezakezu egoera hori hobetzeko?
- Ezagutzen duzu horretan diharduen erakunderik? Informa zaitez eta zabal ezazu horri buruzko informazioa.
- Testuan aipatzen den Zero Pobrezia kanpaina ezagutzen duzu? Informa zaitez.

⁸ UNICEF, 2007ko *Haurren Munduko Egoeraren Hitzazurea*.

- Egin “bidezko sexualitaterako” proposamen bat. Erreferentzia gisa, testuan agertzen diren ideia batzuk erabil ditzakezu: “Bidezko sexualitatea” nagusitzeko, justizia errespetatu behar da sexu-harreman guztietan. Horretarako, gutxienez, bi printzipio hauek hartu behar dira kontuan:
 - Kalterik ez egiteko printzipioa. Printzipio horretan oinarrituta, “sexu-harremanak noizbehinkako lagunarekin, lagun ezberdinekin edo betiko bikotekide ez denarekin izaten dituztenek neurri eraginkorrak hartu behar dituzte haurdunaldia, GIBa eta sexu-transmisiozko beste gaixotasun batzuk eragozteko”.
 - Berdintasun-printzipioa: beste pertsonari norberaren balio bera ematen dio. Printzipio horrek, gutxienez, hau eskatzen du: pertsona bat ez da inoiz behartu behar (zuzenean edo zeharka) sexu-harremanak izatera edo beste pertsona batekin duen konpromiso-erlazioa haustera.
- Testuak iradoki dizkizun iritziekin, idatzi iritzi-gutun bat testuan agertzen den esaldi honi erantzunez: “HIESak hiltzen duen jendeak inori ez dio axola”.
- Zabaldu zure iritzia komunikabideetan eta ahal duzun bitartekoetan: prentsan, irratian, Interneten...



HIESA DUT

*Michael J. Kelly sj**

Zambiako Unibertsitatean hezkuntzako irakasle gisa lanean aritu nintzenean, hezkuntzari eta garapenari buruzko ikastaro bat diseinatu eta martxan jartzeko arduraduna nintzen. Hezkuntzako ikasketak egin nahi zituzten 300 ikasleri zuzenduta zegoen. Ikastaro horretan, aurrerago Milurtekoko Garapen Helburuetan sartuko ziren gai gehienak landu genituen: lehen mailako irakaskuntza unibertsala lortzea; pobrezia eta gosea murriztea; genero-berdintasuna sustatzea, hezkuntzan eta hezkuntzaren bidez; amen eta haurren osasuna hobetzea, neskei hezkuntzarako aukera hobeak eskainiz; eta Zambiako eta harekin muga egiten duten herrialdeetako hainbat egoera bidegabe mantentzen eta sendotzen dituen nazioarteko egitura-ordena kritikatzeko, egoera horien ondorioz hezkuntzako funtsezko helburuak lortzea ezinezkoa baita.

Orduan, 8oko hamarkadaren erdialdean, GIBari-HIESari buruzko informazio iragazia jaso nuen, eta horren bidez hasi nintzen konturatzen erronka berri bat zeto-rrera hezkuntza-sektorerara eta neure alorrera. Gaixotasuna Zambian zenbateraino zabalduta zegoen aztertzen hasi nintzen, eta, hala, hiru arazo berriri aurre egin beharko geniola konturatu nintzen: bat, irakasleen eta administratzaileen “hornidurari” eustea, HIESari begira; bi, hezkuntza-sistema erabiltzea erantzun bat adosteko; eta, hiru, GIBaz eta HIESaz kutsatutako umezurtz- eta haur-kopuru handiari –azkar hazten ari zen– aurre egitea. Batetik, HIESaren eta hezkuntzaren arteko interakzioari, eta, bestetik, laguntzaren eta umezurtzen egoerari buruzko ezagutzaren –gero eta handiagoa da– arteko interakzioari buruz pentsatzera, ira-

* Michael Kelly, sj, Hausnarketa Teologikorako Jesuiten Zentroa. Lusaka, Zambia.

kastera, idaztera eta hitz egitera bultzatu ninduen horrek guztiak, eta, esporadikoki, HIESari dagozkion arloen espektro zabalago batera eraman ninduen.

Proba egin dut, eta emaitza negatiboa izan da. Ez dut GIBik, eta, hala ere, nola-bait “HIESa dudala” esan dezaket. Zehazki, nire bihotzean, nire kontzientzian, nire otoitzean eta nire buruan. Ez nau inoiz bakarrik uzten. Oinez edo lotan nagoela, hor dago, nire aurrean. Negar egiten dut gaixotasun horren ondorioz hil diren ehunka lagunengatik. Ez naiz kikiltzen beren egoerari buruz modu irekian hitz egiten didaten eta bihotza eta adorea beste batzuekin partekatzen dituzten milaka pertsonen aurrean. Txunditu egiten naute kutsatuta dauden eta borrokari halako adorez aurre egiten dieten milaka pertsonak. Kezkatu egiten naute kutsatutako umezurtzek eta haurrek, giza sineskortasunak eta ontasunak ordeztu ezin duten gauza bakarra falta baitzaie: gurasoen maitasuna eta samurtasuna.

“HIESa dudanetik”, nire bizitza aldatu egin da. Hirurogeita hamar urtetik gora eduki arren, mundu osoko hitzaldi askotara egokitu behar izan nuen unibertsitateko irakaslearen bizimodua. Egun osoa hitzaldiak prestatzen, idazten eta postaz arduratzen igarotzen dut. Azkenean, eskolak utzi egin behar izan nituen, ez baitzen ona nire ikasleentzat etengabe kanpoan egotea. Nire bizitza pertsonalean, ez nuen denbora edo energia gehiago izan aisialdirako, lorategia zaintzen gozatzeko, eta ama naturaren bidez Jainkoarekin harremanetan jartzeko.

HIESak ez zidan uzten. Kontsumitu egiten ninduen, eta hala jarraitzen du, birusarekin kutsatuta dauden pertsonen gorputzetan egiten duen bezala. Jesuita gisa, horrek hiru galdera ignaziotar nagusiak egitera bultzatzen nau: Zer egin dut GIBaz eta HIESaz kutsatutako Kristogatik? Zer ari naiz egiten orain Kristo honengatik? Zer gehiago egin behar nuke gutxiago sufri dezan, HIESa murrizt dadin, jendea duintasun handiagoz bizi dadin, eta Jainkoak irudikatu zuen mundu zoriontsuari hurbiltzen zaion mundu batean errealiza dadin?

Pentsatzen dut ezingo nukeela jarraitu egiten ari naizenarekin, jendea eta haurrengatik ez balitz. Kezkatuta nago haien sufrimenduari eta haiei makurrazteko eta gizatasuna kentzeko moduari. Baina, aldi berean, konprometituta sentitzen naiz haien erresistentzia, espiritu, ausardia, kemen eta alaitasunagatik. 138. salmoak Jainkoari eskerrak emateko gonbita egiten du “neure izatearen mirariagatik”. GIBarekin edo HIESarekin bizi direnek, epidemiaz kutsatutako emakumeek, umezurtzek eta haurrek, Jainkoari eskerrak ematen laguntzen dida-

te, haien izatearen eta erantzunen mirariagatik. Horixe da jendearen miraria; mundu honetan gauza eta erosotasun gutxi dituzte, baina opari zoragarri ugari dituzte: sendotasuna, bata bestearekiko arduratzea, ausardia, ezbeharraren aurrean adoretzea eta maitasunezko Jainkoarenganako erabateko konfiantza. Hain zuzen, Jainko horrek mantentzen nau bizirik. Eta, haren inspirazioa eta maitasunagatik, aurrera jarraitu behar dut. Pertsona batek GIBarekin jarraitzen duen bitartean edo gaixotasunak haur bat gurasorik gabe uzten duen bitartean, ezin naiz gelditu. Jainkoak deitzen nauen arte edo HIESa gelditu arte, jarraitu beharra daukat.

AFRIKATAR EMAKUMEAK: EPIDEMIA GAINDITZEKO ITXAROPENA

*Michael J. Kelly sj**

Jesusen pasioa eta gurutziltzaketa gertaera gorrotagarriak izan ziren. “Madarikatua enborretik zintzilik dagoen oro” (Gal3, 13). Hala ere, gure arteko Jainkoaren botere salbatzailearen bidea eta berpizkundearen garaipenerako bidea izan ziren. GIBak eta HIESak ezaugarri maltzur berberak dituzte. Berez gorrotagarriak dira, eta haien aurka etengabe borrokatu behar da; baina, aldi berean, horiei esker, pertsona ugari beren arimaren handitasuna erakutsi ahal izan dute.

Brigitte Syamalevwe frantseseko irakaslea zen, Zambiano bigarren hezkuntzako ikastetxe batean. 1992an, GIB-eramailea zela jakinarazi zioten, zehazki, Afrikan antirretobiralak oso garestiak zirenean. Denboraldi batean, haren bizitzak gain-behera zihoala zirudien. Itxaropena galdu zuen, atsekabetu egin zen, eta Jainkoaren eta gosearen aurka oihu egin zuen. Baina desoreka horretan, apaiz zentzudun batek lagundu egin zion; egoerari aurre egiten eta onartzen lagundu zion, eta egoera horri buruz hitz egin zuen, beste batzuei gauza bera gerta ez zekien.

Brigittek erronka onartu zuen, eta eragile dinamiko bihurtu zen epidemiarekin zerikusia zuen guztian, bereziki, GIBaz kutsatuta bizi ziren pertsonen zegoikenez. Irakaskuntza utzi, eta dibulgazioari eta laguntzari erabat lotu zitzaion. goeko hamarkadaren amaieran, pertsona ezaguna zen nazioartean GIBari eta HIESari buruz beldurrik gabe, sentimenduz eta balentriaz hitz egitegatik.

Hala ere, denboraldi horretan gaixotasuna bere gorputza makaltzen joan zen. Antirretobiralak eskuratzea errazagoa zen eta merkatzen zihoazen. Brigitteren

jarraitzaileak tratamendu medikoa ordaintzea eskaini zioten, baina ez zuen onartu; esan zuen Zambiano behartsuek eta, bereziki, emakumeek tratamendu hori lor zezaketenean bakarrik onartuko zuela.

Bitartean, bere lanean jarraitu zuen, mundu osoan hitzaldiak ematen, hezitzaile eta langileentzako “tailerrak” sustatzen, eta GIBaz kutsatutako kideak zituzten landa-herrixkek bizirauteko behar zituzten elikagaiak produzitzen jarraitzen zutela ziurtatzen. Hitzaldi edo tailer bat amaitutakoan zer moduz zegoen galdetzen ziotenean, irribarre egiten zuen, nekatuta. Izugarrizko nekea eta batzuetan gora-galea izaten zituela onartzen zuen, eta hanka eta izterretako minari buruz hitz egiten zuen. Hala ere, borrokatzen jarraitzen zuen, beti pozik, beti gainerakoei itxaropena ematen, eta bere buruaz arduratu gabe. Tratamendu medikoarekin jarraitzeari uko egin zion.

2001etik aurrera, bere bizitzak okerrera egin zuen. Ubere semerik gazteenari (denetan maiteena), 20 urtekoa, oin bat anputatu zioten gangrenaren ondorioz. Ondorengo hilabete ilunetan, izugarrizko babesa eta adorea eman zizkion kirolari gazteari. Hark, eskerdun, sarritan esaten zion Jainkoak misio bat eman ziola, hain zuzen, munduari GIBaren eta HIESaren berri ematea, gaixotasunaren barruan nola bizitzen zen adieraztea, eta misio hori inoiz ez uzteko.

Ez zen erraza izan Brigitterentzat. Gero eta ahulago zegoen, immunitate-sistema pixkanaka gelditzen baitzihoan. Aldi berean, GIBaz kutsatutako ia 100 familia (berak hartu zuen haien ardura) golde eta hazirik gabe ez gelditzea lortu zuen, euritea eta landatzeko garaia iristean. Arazo horietan buru-belarri zebilen 2002ko urrian HIESaren ondorioz senarra hil zitzaionean. Baina lutoaren eta doluaren ohiko denboraldi luzea igaro beharrean, ia senarraren hileta amaitu bezain laster, GIBaz kutsatutako familiekin lan egitera itzuli zen.

Bitartean, Ubere osasunak okerrera egin zuen, oinean zuen minbizia gorputz osora zabaldu baitzitzaion. Garai hartan, Brigittek Londresera joan behar izan zuen Nazioarteko Harremanetarako Institutu Katolikoan (CIIR) hitzaldi bat ematera. Ubere esan zion, hura hain gaixo zegoenetik, ez zekiela zer egin. Hark, beste behin ere, lehen esandakoa gogorarazi zion: Jainkoaren misio berezia zuela, eta, horregatik, Londresera joan eta hitzaldia eman behar zuela, berarekiko kezkek ezin zutela geldiarazi.

Londresera joan zen, eta, hara iritsitakoan, Ubert hil egin zela jakinarazi zioten. Gau hartan hoteleko gelan gelditu zen bakarrik, lurrean eserita, kulunka, bere

minean, seme maiteaz eta haren nahiaz pentsatzen, alegia, Jainkoak emandako misioa betetzeaz. Eguna argitutakoan, BBCra joan zen ordubeteko elkarrizketa egitera; arratsaldean, CIIRren aurkezpena egin zuen, eta, iluntzean, Zambiarantz itzultzeko hegaldia hartu zuen semearen hiletara joateko. Bi hilabeteren buruan lurperatu zuten familiako bigarren kidea zen.

Uberten heriotzak bihotza erdiratu zion. Bere osasunak okerrera egiten jarraitu zuen. Azkenean, sendagile batek azter zezan utzi zuen, eta, beharrezkoa balitz, ARVak hartzea onartu zuen. Sendagileak ARVak agindu zizkion, erosi zituen, baina bere senitartekoak farmaziara haiek jasotzera zihoazenean, ez joateko esan zien, Jainkoaren esku gelditu nahi baitzuen. Eta hala, sufrimenduz, nekez eta minez beteta, lasai eta bakean hil zen 2003ko otsailean. Bere arima Jainkoarengana pasatzen utzi zuen, hainbeste maite eta zerbitzatu zuen Jainkoarengana.

Ezinezkoa da horrelako emakume batekin ez hunkitzea. Eta Brigitteren kasua ez da bakarra. GIBa edo HIESa eduki arren, adorez bizi diren Zambiako eta Afrika osoko emakume ugari ordezkaria da. Segur aski, iritsiko da Afrikako emakumeen eta GIBarekin bizi diren pertsona miresgarrien ordezkaria diren Brigitteak kanonizatzeak mobilizatuko garen eguna. Brigittek eta hura bezalako pertsonak interpelatzen gaituzte eta epidemia gainditzeko esperantza ematen digute. Emakume horiek GIBaren eta HIESaren iluntasuneko pazko-testigantzak dira. Eskerrak ematen dizkiegu, haien oroimena ohoratzeko.



GLOSARIOA

ELIKAGAIEN SEGURTASUNA: uneoro bizitza aktiboa eta osasuntsua izateko elikadura-beharrak eta elikadura-lehentasanak asetzeko adina elikagai ez-kaltegarri eta elikagarri lortzeko baliabide materialak eta ekonomikoak dituzten pertsonen egoerari egiten dio erreferentzia. 1996an, Elikadurari buruzko Munduko Goi-bilera sustatu zuen Erroman FAOk; pertsona orok elikagaien segurtasunerako eskubidea duela berretsi zuten nazioarteko komunitateko estatuburuek.

[www.fao.org]

ERRETROBIRUSAREN AURKAKOAK: funtsezko enzimak inhibitzen dituzten eta, horren bidez, GIBaren (IHESaren birusa) erreplikazioa murrizten duten botikak dira. Hala, gaixotasunak aurrera egitea eta infekzioak sortzea geldiarazten da. IHESa berez sendaezina bada ere, farmako horiek modu jarraian erabilita, bizi luze eta ia normalarekin bateragarria den gaixotasun kroniko bilaka daiteke. Birusaren funtzionatzeko modutik dator izena: GIBaren kode genetikoa –hau da, erreplikatzeko behar dituen ezaugarri genetikoak– zelulen azido erribonukleikoan (RNA) kokatzen da. Egoera normalean, azido desoxirribonukleikoak (DNA) kontrolatzen du azido erribonukleikoaren (RNA) “portaera”. GIBek, ordea, informazioaren noranzkoa alderantzizkatzea lortzen du, bere mezuak RNAtik zelularen DNARA bildalita; horrexegatik deitzen zaio eretrobirusa.

GENERO-DESBERDINTASUNA: kulturalki sexu jakin bati esleitu zaizkion ezaugarrien arabera pertsonak jasotzen duten tratua eta aukera-desberdintasuna da, baita gizonezkoak emakumezkoari buruz egiten duen balioespenaren ar-

berakoa ere. Gure gizarteetan, genero-diskriminazioak muga ezberdinak ezartzen dizkie gizonei eta emakumeei bizitza publikoan eta familia-esparruan garatu eta integratzeko. Emakumeak azken eremu horretara mugatzen ditu batez ere. Gnero-desberdintasuna dela eta, emakumeek arlo publikoan gutxiago parte hartzen dute, eta ez dute gizonen maila bera ekoizpen-baliabideetan. Hori dela eta, erabakiak hartzeko eta boterea erabiltzeko aukera gutxiago dute emakumeek.

[www.oit.org.pe/ipec]

[www.unifem.org.mx]

GLOBALIZAZIOA: eraldaketa sozial, ekonomiko eta politiko batzuen bidez, izaera globala emanez, munduko herrialdeen arteko komunikazio eta mendekotasun geroz eta handiagoak dakarren merkatu-, gizarte- eta kultura-bateratzea da globalizazioa. Hala, ekoizpen-moduak eta kapital-mugimenduak planeta mailan finkatzen dira, eta gobernuak, berriz, eskuduntzak galduz joaten dira “sareko gizartea” deitutakoaren aurrean.

HARTUTAKO INMUNOESKASIAREN SINDROME (HIESA): GIB-az kutsatutako pertsonen eragiten dien gaixotasuna da. Pertsona batek HIESa duela esaten da bere organismoak, GIBak (Giza-Inmunoeskasiaren Birusa) eragiten duen inmunodepresioagatik, infekzioen aurka erantzun immune bat emateko gai ez denean. GIBa gorputz-isurien bidez kutsatzen da: odola, semena, baginajariakina eta amaren esnea.

MUNDUKO BANKUA (MB): 1944an sortua da nazioarteko erakunde hori, Bigarren Mundu Gerrak suntsitutako Europa berreraikitzen laguntzeko. Arrakasta izan zuen bankuak zeregin horretan, eta, zenbait urteren ondoren, garabidean zeuden herrialdeez arduratzen hasi zen. Egun, 184 estaturen esku dago MB, eta munduko pobrezia murriztea eta pertsonen bizi-maila hobetzea ditu helburu. Interes baxuko maileguen, interesik gabeko kredituen eta hezikuntza-, osasun-, azpiegitura- eta komunikazio-proiektuetarako eta abarretarako dohaintzen bidez gauzatzen da helburu hori. Hauek osatzen dute Munduko Bankua Taldea: a) Berreraikuntza eta Sustapeneko Munduko Bankua (kreditu-gaitasuna duten herrialde pobreetara eta diru-sarrera ertainak dituzten herrialdeetara bideratzen ditu bere jarduerak) b) Nazioarteko Garapen Elkarte (NGE) (herrialde txiroenei laguntzen die) c) hiru erakunde

kide hauek: Nazioarteko Finantza Korporazioa, Inbertsioak Bermatzeko Alde Anitzeko Erakundea eta Inbertsioei buruzko Desadostasunak Konpontzeko Nazioarteko Zentroa.

[www.bancomundial.org]

MUNDUKO MERKATARITZA ANTOLAKUNDEA (MMA): merkataritza-korronteek erraztasun, aurreikuspen eta askatasun handienarekin zirkula dezaten ziurtatzeko herrialdeen arteko merkataritza arautzeaz arduratzen den nazioarteko erakundea. MMAren barruan ia 150 estatu daude, eta guztien artean munduko merkataritzaren %97tik gora hartzen dute. 1995ean eratu zen, baina Bigarren Mundu Gerraren ostean, 1948an, eratutako Merkataritzari eta Aduanako Tarifei buruzko Akordio Nagusiaren (GATT) ondorengoa da. MMAren hitzarmenak estatu kideei merkataritzaren alorrean eskubide garrantzitsuak bermatzen dizkieten kontratuak dira funtsean, eta, aldi berean, kontratu horiek direla medio, gobernuak behartuta daude beren merkataritza-politikak guztien onurarako hitzartuak izan diren mugen barruan mantentze-
ra. MMAren erabakiak estatu kide guztien arteko adostasunez hartzen dira, eta gero tokian tokiko parlamentuaren berrespena behar dute.

[www.wto.org]

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (NBE): 1945ean sortu zen. Gobernu arteko erakundea da, eta helburu hauek ditu: nazioarteko bakeari eta segurtasunari eustea eta munduko herri guztietan giza eskubideak eta garapen jasangarria sustatzea, nazioarteko lankidetzarako eta alde anitzeko lankidetzarako mekanismoen bidez. 192 estatu kide ditu.

*Hegoa (2006) "Emakumeak munduko biltzarretan.
Tokian tokikotik globalera"*

[www.un.org]

NAZIOARTEKO MONETA FUNTSA (NMF): 1945ean sortu zen alde anitzeko erakunde hori, nazioarteko moneta- eta finantza-sistemaren egonkortasuna zaintzeko (nazio-moneten arteko nazioarteko ordainketen eta truke-neurrien sistema da, herrialdeen arteko merkataritza egingarri bihurtzen duena). Orotara, 184 herrialdek hartzen dute parte erakundean. Hauek dira NMFren jardueren helburuak: nazioarteko moneta-lankidetzaren sustatzea; nazioarteko merkataritzaren hedadura eta hazkunde orekatuari bide ematea; truke-egonkortasuna susta-

tzea; alde anitzeko ordainketen sistema ezartzen laguntzea; erakundearen baliabideak ordainketa-balantzetan zailtasunak dituzten estatuen esku jartzea –berme egokiekin–. Helburu horiek lortzeko, hiru mekanismo nagusi erabiltzen ditu NMFk: ikuskapena, laguntza teknikoa eta finantza-laguntza.

[www.imf.org]

TRIPS – ADPIC: MMAren hitzarmena, merkataritzarekin lotutako jabetza intelektualaren eskubideei buruzko alderdien gainean. Jabetza intelektualaren eskubideak pertsonari ematen zaizkio haren adimenaren sorkuntzaren gainean. Epe jakin baterako eskubide eskusiboak ematen dizkiote sortzaileari, bere obraren erabileraren gain.

[www.wto.org]